

Bizkaiko Foru Aldundiaren, zeinaren bidez onartzen baitira erabilera edo zerbitzu publikoei atxikitako azpiegituretan udal-eskumeneko inbertsioak sustatzeko xedez Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak 2026ean emango dituen dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones que se concedan en el 2026 por el Departamento Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales que tienen por finalidad el fomento de inversiones de competencia municipal destinadas a infraestructuras afectas a usos o servicios públicos.

Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen 2024ko ekainaren 13ko 63/2024 Foru Dekretuak eskumena ematen dio sail honi udal azpiegituretako lanak finantzatzeko dirulaguntzak nola eman arautuko duen foru-dekretuaren eredua proposatzeko.

El Decreto Foral 63/2024, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales atribuye a este Departamento competencia para proponer un modelo de decreto foral por el que se regule la concesión de subvenciones con objeto de financiar las obras de infraestructuras municipales.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2026. urteko Aurrekontu Orokorretan, behar den kreditua gorde da zerbitzu edo erabilera publikoei lotutako azpiegituren benetako inbertsioetan jarduerak, udal-eskumenekoak Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriekin batera finantzatzeko ematen diren dirulaguntzak ordaintzeko, eta, beraz, ezinbestekoa da haiek arautzeko arautegia ezartzea.

En los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2026 se ha consignado el crédito preciso para hacer efectivas las subvenciones para cofinanciar, junto con los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia, inversiones reales de competencia municipal destinadas a infraestructuras afectas a usos o servicios públicos a cuyo efecto se hace necesario establecer la normativa reguladora.



Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusten dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura erregulatzen duen 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da). Halaber, dekretu horren 14. artikuluan ezarritakoarekin bat, txosten hauek egin dira:

1. Proiektua sustatu duen sailak egindako txosten juridikoa.
2. Generoaren gaineko eraginik ezari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoaren txostena.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; bestalde, Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia. Asimismo, tal y como establece el artículo 14 de este decreto, se han emitido los siguientes informes:

1. Informe Jurídico del departamento promotor.
2. Informe de ausencia de relevancia de impacto de género.
3. Informe de control económico.

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico y el artículo 41.1 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, residiendo en el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral la competencia para su aprobación.



Halaber, foru-diputatuen eskumena da, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onar ditzan, hain zuzen ere, hori xedatzen baitu Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua.

Horrenbestez, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak aztertutik, honako hau:

Asimismo, el artículo 39 k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su departamento.

En su virtud, a iniciativa del diputado foral del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia:

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Artikulu bakarra. *Dekretu honen xedea.*

Artículo único. *Objeto del presente decreto.*

Erabilera edo zerbitzu publikoei atxikitako azpiegiturretan udal-eskumeneko inbertsioak sustatzeko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak 2026an dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarriak onesten dira. Hona deialdi-oinarrion testua:

Se aprueban las bases-convocatoria del año 2026 para la concesión de subvenciones por el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales para el fomento de inversiones de competencia municipal destinadas a infraestructuras afectas a usos o servicios públicos, cuyo texto se inserta a continuación.

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

Base 1. *Objeto de la subvención.*

1. Arautegi erregulatzailer honetan aipatzen diren dirulaguntzen xedea da erabilera publikoari atxikita geratuko diren edo zerbitzu publiko baterako izango diren ondasunak eraiki edo hobetzeko udal-eskumeneko jarduketak sustatzea, halako azpiegituren maila egokia lortzeko.

1. Constituye objeto de las subvenciones a que se refieren la presente normativa reguladora el fomento de las actuaciones de competencia municipal para construcción o mejora de bienes que quedarán afectos a un uso público o destinados a un servicio público a fin de lograr un adecuado nivel de estas infraestructuras.

2. Dirulaguntza jaso dezaketen jarduketak honako inbertsio-programa hauetan sailkatuko dira:

2. Las actuaciones subvencionables se clasificarán en los siguientes programas de inversión:

a) Titulartasun publikoko eraikinak,

a) Construcción, remodelación y reforma de



instalazioak eta ekipamenduak eraiki, birmoldatu eta berritzeko lanak.

edificios, instalaciones y equipamientos de titularidad pública.

b) Egun ibilgailuentzat zabalik dauden guneak oinezkoentzako gune bihurtzea.

b) Peatonalización de espacios actualmente abiertos a la vialidad rodada.

c) Bide publikoak eta hiriko aparkalekuak egiteko eta horietan zoladura jartzeko lanak.

c) Ejecución y pavimentación de vías públicas y aparcamientos urbanos.

d) Erabilera publikoko ondasunak estaltzea eta hornitzea, hala nola aparkalekuak, garraio publikoko geroalekuak edo parkeak.

d) Cubrición y equipamiento de bienes de uso público tales como aparcamientos, paradas de transporte público o parques.

e) Uraren, saneamenduaren, argiteria publiko, gasen eta komunikazioen hornikuntzetarako azpiegiturak.

e) Infraestructuras para suministros de agua, saneamiento, alumbrado público, gas y comunicaciones.

f) Irisgarritasuna hobetzen duten azpiegiturak.

f) Infraestructuras que mejoren la accesibilidad.

3. Dirulaguntzak inbertsio iraunkorretarako bakarrik emango dira, baldin eta udalaren etorkizuneko egoera ekonomikoa eta finantzak arriskuan jartzen ez badituzte. Horretarako, dirulaguntza jasotzen duen azpiegiturak hurrengo hiru urteetan sor ditzakeen gastuak (halakorik sortuz gero) finantzatzeko diru-iturrien justifikazioa aurkeztu beharko du erakundeak.

3. Se subvencionarán únicamente inversiones sostenibles que no pongan en riesgo la situación económico-financiera futura del municipio. A tal efecto, la entidad deberá presentar justificación de las fuentes de financiación de los posibles gastos nuevos que en los siguientes tres años genere, en su caso, la infraestructura objeto de subvención.

4. Administrazioak inbertsioak bere bitartekoekin egiten dituenean, pertsonalgastuak ez dira diruz laguntzekoak izango.

4. Cuando las inversiones sean realizadas por la Administración con medios propios no serán subvencionables los gastos de personal.

5. Diruz lagundu daitekeen inbertsioetat jotzen dira kasuan kasuko erabilera edo zerbitzu publikoari atxikitako altzariak.

5. Se entiende como inversión subvencionable el mobiliario afecto al uso o servicio público correspondiente.

2. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

Base 2. *Beneficiarios de la subvención.*



1. Foru-dekretu honetan xedatutako dirulaguntzen onuradun izan daitezke 2025eko urtarrilaren 1ean udal erroldan dauden datuen arabera 7.500 biztanle edo gutxiago dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak, baldin eta ez badaude Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko 2. atalean jasotzen diren egoeratakoren batean.

2. Sexu-bazterkeriagatik administrazio zigorren bat edo zigor penalen bat jaso duten edo Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legea dela-eta debeku horrekin zigortu edo zehatutako erakundeek ezin izango dute deialdi honetan parte hartu, zehapen horrek ezarritako epean zehar.

3. oinarria. Araubide juridikoa.

Hau izango da dirulaguntza hauen araubide juridikoa:

a) Foru-dekretu honetan araututako oinarriak eta deialdia.

b) 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena.

c) 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, zeinaren bidez onesten baita dirulaguntzen erregelamendua, Dirulaguntzen 5/2005 Foru Araua garatzen duena.

d) Administrazio zuzenbideko gainerako arauak eta, haiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

4. oinarria. Arau-haustea eta zehapenak.

1. Podrán acogerse a las subvenciones previstas en el presente decreto foral los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia cuya población deducida del Padrón municipal a 1 de enero de 2025 sea inferior o igual a 7.500 habitantes, siempre que no incurran en ninguna de las circunstancias prohibitivas contenidas en el apartado 2 del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

2. No podrán concurrir a la presente convocatoria, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, las entidades sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Base 3. Régimen jurídico.

El régimen jurídico de estas subvenciones será:

a) Las bases-convocatoria reguladas en este Decreto Foral.

b) La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

c) El Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones.

d) Las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, se aplicarán las normas de derecho privado.

Base 4. Infracciones y sanciones.



Arau-hauste eta zehapenatarako, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluan xedatutakoa ere. Nolanahi ere, dagozkien berandutze-interesak eskatuko zaizkie beti.

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el Título IV del Reglamento de desarrollo. Se les exigirá, en todo caso, los intereses de demora correspondientes.

5. oinarria. *Eskabideak aurkezteko era eta epea.*

Base 5. *Forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.*

1. Eskabidea aurkezteko, udal interesdunek egoitza elektronikora jo behar dute. Esteka www.bizkaia.eus/udalnet web orriko Tramiteak atalean aurki dezake, 2026eko otsailaren 17an amaitzen den epean.

1. Los municipios interesados presentarán la solicitud a través de Sede Electrónica. Pueden encontrar el enlace en el apartado Trámites de la página web: www.bizkaia.eus/udalnet, en un plazo que termina el 17 de febrero de 2026.

Eskabidearekin batera, hurrengo atalean eskatzen diren agiriak elektronikoki sinatuta, hala badagokio, erantsiko dira.

A la solicitud se adjuntará la documentación firmada electrónicamente, en su caso, requerida en el apartado siguiente.

6. oinarria. *Eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu behar diren agiriak.*

Base 6. *Documentación preceptiva a presentar en la solicitud.*

1. Eskabidea foru-dekretu honen I. eranskinean ageri den eredu normalizatuan egingo da eta harekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. La solicitud se efectuará en el modelo normalizado que figura en el anexo I al presente decreto foral, al que se adjuntará la siguiente documentación:

a) Diruz laguntzea eskatzen den inbertsioaren aurrekontu zehaztua, kengarria ez den jasandako BEZaren zenbatekoa barne, eta, hala badagokio, baloratutako proiektu tekniko bat, ahal dela euskarri informatikoan, legez nahikoa eskumen duen teknikari batek idatzia.

a) Presupuesto detallado de la inversión para la que se solicita la subvención, incluyendo el importe del IVA soportado no deducible, y, en su caso, el proyecto técnico valorado, preferentemente en soporte informático, redactado por personal técnico con atribuciones legales suficientes.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik daudela egiaztatzen duten agiriak, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanatarako Sailak egiaztatutako zuzenean ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena berariaz ukatu bada.

b) Documentación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social en caso de haber denegado expresamente el consentimiento para que el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales obtenga de forma directa las acreditaciones



Eskatzaileak, dirulaguntzarako eskabidea aurkeztean, baimena emango dio Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Sailari zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak zuzenean lortzeko. Hala ere, eskatzaileak berariaz adieraz dezake ukatu egiten diola baimen hori.

oportunas a través de certificados telemáticos. La presentación de la solicitud de subvención conllevará la autorización para que el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales obtenga de forma directa las certificaciones oportunas acreditativas del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social. No obstante, se podrá denegar expresamente el consentimiento.

c) Idazkariak emandako ziurtagiria, II. eranskineko ereduaren arabera:

c) Certificado de la Secretaría según modelo del anexo II:

1. Helburu bererako eskatzaileak estatuko zein nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutik eskuratu dituen edo horiei eskatu dizkien dirulaguntza edo laguntzei buruzkoa.

1º Sobre otras subvenciones o ayudas que el solicitante hubiese obtenido o solicitado para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales.

2. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 5/2005 Foru Arauaren 12.2. artikuluan aipatzen diren inguruabarrak ez direla gertatzen adierazten duena; izan ere, egoera horiek eragotzi egiten dute onuradun izateko aukera.

2º Sobre la no concurrencia de las circunstancias referidas en el artículo 12.2 de la Norma Foral 5/2005, por la que se regula el Régimen Jurídico de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y que impiden la obtención de la condición de entidad beneficiaria.

3. Udal-eskumeneko inbertsioak erabilera publikoarekin zerikusia duela edo zerbitzu publiko baterako dela adierazten duena.

3º Sobre la afección de la inversión de competencia municipal a un uso público o el destino a un servicio público.

4. Izandako zehapenak adierazten dituen.

4º Sobre las sanciones.

5. Ondasunaren titulartasun publikoa adierazten duena, dirulaguntza titulartasun publikoko eraikinak eraiki, birmoldatu eta berritzeko eskatzen denean.

5º Sobre la titularidad pública del bien en caso de solicitar subvención para la construcción, remodelación y reforma de edificios de titularidad pública.

d) Kontu-hartzailetzaren edo idazkari kontu-hartzailearen txostena gastua xedatu den edo xedatuko den aurrekontu-kredituari buruzkoa, III. eranskineko ereduaren arabera.

d) Informe de la intervención o de la secretaría-intervención relativo al crédito presupuestario contra el que se ha dispuesto o se dispondrá el gasto, de acuerdo con el modelo establecido en el anexo III.

e) Inbertsioaren iraunkortasun ekonomikoari buruzko txostena (IV. eranskina).

e) Informe sobre la sostenibilidad económica de la inversión (anexo IV).

f) Memoria: egin beharreko inbertsioaren deskribapen laburra.

f) Memoria: breve descripción de la inversión a realizar.



2. Eskabidearekin batera eskatzen diren agiriak aurkeztu ez edo oso-osorik aurkezten ez badira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunei errekerimendua egingo zaie hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituzten nahitaezko agiriak eramateko, eta adieraziko zaie ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko direla, horretarako ebazpena 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

2. Si junto con la solicitud no se aportan los documentos exigidos o se aportan de forma incompleta, se requerirá a los interesados, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y, para que, en un plazo de diez días, subsane las faltas o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la citada Ley.

3. Edonola ere, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak aurkeztutako eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

3. En todo caso, el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales podrá solicitar cuanta información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.

7. oinarria. *Dirulaguntza emateko prozedura.*

Base 7. *Procedimiento de concesión.*

Dirulaguntzak emateko prozeduran, norgehiagokaren araubiderako arauetan zehazten diren izapideak beteko dira.

El procedimiento de concesión de las subvenciones se ajustará a los trámites normativamente previstos para el régimen de concurrencia competitiva.

8. oinarria. *Eskabideak baloratzeko irizpideak.*

Base 8. *Criterios de valoración de las solicitudes*

1. Eskabideak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

1. Las solicitudes se valorarán en función de los siguientes criterios:

a) *Per capita* inbertsioa; formula honen arabera:

a) Inversión per cápita: Según la siguiente fórmula:

Diruz lagundu daitekeen aurrekontua

Presupuesto subvencionable

2025/1/1eko biztanleria

Población 1.1.2025

Irizpide honen balorazioa:

La valoración de este criterio será:

1. 100 eurotik gorakoa, 40 puntu.

1º Mayor de 100€, 40 puntos.

2. 10 € eta 100 € artekoa, 20 puntu.

2º Entre 10€ y 100€, 20 puntos.

3. Gainerakoetan, 0 puntu.

3º Resto, 0 puntos.



b) Inbertsio erlatiboa; formula honen arabera:

b) Inversión relativa: Según la siguiente fórmula:

<i>Diruz lagundu daitekeen aurrekontua</i>	<i>Presupuesto subvencionable</i>
Eskubide onartu korronteak, onartutako azken likidazioaren arabera	<i>Derechos reconocidos corrientes según la última liquidación aprobada</i>
Irizpide honen balorazioa:	La valoración de este criterio será:
1. % 20tik gorakoa, 40 puntu.	1º Mayor de 20%, 40 puntos.
2. % 5 eta % 20 artekoa, 20 puntu.	2º Entre 5% y 20%, 20 puntos.
3. Gainerakoetan, 0 puntu.	3º Resto, 0 puntos.
2. Gutxienez 20 puntu lortu beharko dira erakunde onuradunaren izaera lortu ahal izateko.	2. Se deberá obtener una puntuación mínima de 20 puntos para poder obtener la condición de entidad beneficiaria.
9. oinarria. <i>Dirulaguntzaren zenbateko individualizatua.</i>	Base 9. <i>Cuantía individualizada de la subvención.</i>
1. Deialdi honetan, 1.200 biztanle edo gutxiagoko udalerrietarako, gehienez ere 60.000 euroko aurrekontua soilik hartuko da kontuan onuradun bakoitzeko, edozein delarik ere diruz laguntzea eskatzen den aurrekontuaren zenbatekoa. Gainerako udalerrientzat, berriz, gehienez ere 100.000 €, onuradun bakoitzeko, izango da diruz lagundu daitekeen aurrekontua.	1. En la presente convocatoria, para los municipios con población igual o inferior a 1.200 habitantes únicamente se tendrá en cuenta un presupuesto subvencionable máximo de 60.000€ por beneficiario, independientemente del importe del presupuesto para el que se solicite subvención. Para el resto de los municipios, el presupuesto subvencionable máximo por beneficiario será de 100.000€.
2. Dirulaguntzaren zenbatekoa fase bitan zehaztuko da: hasierako fasean, aurrekontu onartu doituen arabera zehaztuko da, 3. zenbakian arautzen denarekin bat; behin betiko fasean, berriz, adjudikazio onartu doituen arabera zehaztuko da, 4. zenbakian arautzen denarekin bat.	2. La cuantía de la subvención se determinará en dos fases, una inicial en función de los presupuestos admitidos ajustados, tal y como se regula en el apartado 3 y otra definitiva, en función de las adjudicaciones admitidas ajustadas, según se dispone en el apartado 4.
3. Dirulaguntzaren hasierako zenbatekoa zehazteko orduan prozedura hau beteko da:	3. Para la fijación inicial de la cuantía de la subvención se seguirá el siguiente procedimiento:
a) Diruz lagundu daitezkeen jarduketan aurrekontua 1. zenbakian ezarritakoa baino	a) El presupuesto de las actuaciones subvencionables, en caso de ser superior a lo



handiagoa bada, aurrekontua gehieneko zenbateko horietara doitu da.

establecido en el apartado 1, se ajustará a dichos importes máximos.

b) Aurrekontu-kreditua, 3.000.000 €, hasiera batean honela banatuko da:

b) El crédito presupuestario de 3.000.000€ se distribuirá inicialmente de la siguiente manera:

1. 1.200 biztanle edo gutxiagoko udalerrientzat 2.000.000€ izango da. Zenbateko hori 8. oinarriaren 2. zenbakian ezarritako gutxieneko balorazioa lortu duten diruz lagundu daitezkeen inbertsioen aurrekontu onartu guztien baturaren artean zatitu da; aurrekontuok, beharrezkoa bada, doitu eta egongo dira. Horrela, aurrekontu onartu eta doituari aplikatu beharreko hasierako diruz lagundutako ehunekoa lortzen da. Ehuneko hori ezin da % 100 baino handiagoa izan.

1º Para los municipios con población igual o inferior a 1.200 habitantes será de 2.000.000€. Este importe se dividirá entre la suma de todos los presupuestos ajustados admitidos, en su caso, de las inversiones subvencionables que hayan obtenido la valoración mínima establecida en la base 8 apartado 2. De esta forma, se obtiene el porcentaje subvencionado inicial a aplicar al presupuesto admitido y ajustado. Este porcentaje no puede ser superior al 100%.

2. Gainerako udalerrientzat 1.000.000€ izango da. Zenbateko hori 8. oinarriaren 2. zenbakian ezarritako gutxieneko balorazioa lortu duten diruz lagundu daitezkeen jarduketan aurrekontu onartu guztien baturaren artean zatitu da; aurrekontuok, beharrezkoa bada, doitu eta egongo dira. Horrela, aurrekontu onartu eta doituari aplikatu beharreko hasierako diruz lagundutako ehunekoa lortzen da. Ehuneko hori ezin da % 100 baino handiagoa izan.

2º Para el resto de los municipios será de 1.000.000€. Este importe se dividirá entre la suma de todos los presupuestos admitidos, ajustados en su caso, de las actuaciones subvencionables que hayan obtenido la valoración mínima establecida en la base 8 apartado 2. De esta forma, se obtiene el porcentaje subvencionado inicial a aplicar al presupuesto admitido y ajustado. Este porcentaje no puede ser superior al 100%.

c) Behin b) letrako banaketa eginik:

c) Una vez realizada la distribución de la letra b):

1. 1.200 biztanle edo gutxiagoko udalerrietan, baldin eta lehen banaketa batean onarturiko aurrekontuaren %100era heltzen bada eta b.2. zenbakiko portzentajea ez bada % 100era heltzen, sobera geratzen den beharrezko kreditua b.2. zenbakiko portzentajea gehitzera bideratuko da, baina gehienez ere % 100era ailegatu arte.

1º Para los municipios de igual o menos de 1.200 habitantes, si se alcanzase en un primer reparto el 100% y el porcentaje del apartado b) 2º no alcanzase el 100%, se destinará el crédito sobrante necesario a aumentar el porcentaje del apartado b) 2º hasta alcanzar como máximo el 100%.

2. Gainerako udalerrietan, baldin eta lehen banaketa batean onarturiko aurrekontuaren % 100era heltzen bada eta b.1. ataleko portzentajea ez bada % 100era heltzen, sobera geratzen den beharrezko kreditua b.1. ataleko portzentajea gehitzera bideratuko da, baina gehienez ere % 100era ailegatu arte.

2º Para el resto de los municipios, si se alcanzase en un primer reparto el 100% y el porcentaje del apartado b.1º no alcanzase el 100%, se destinará el crédito sobrante necesario a aumentar el porcentaje del apartado b.1º hasta alcanzar el 100%.



4. Behin betiko zenbatekoa zehazteko, 16. oinarrian arautzen denarekin bat, 3. zenbakian deskribatzen den prozedura jarraituko da, baina, kasu honetan, erabilitako zenbatekoak, onartu eta doituak, kontuan hartuta.

Horrela, zenbateko doitu onartu eta doituari aplikatu beharreko behin betiko diruz lagundutako ehunekoa lortzen da. Ehuneko hori ezin da % 100 baino handiagoa izan.

5. Aurreko 4. atalean araututakoa ezarri ondoren, eta udalen batean gehiegizko finantzaketarik gertatuz gero, tarterako onetsitako zenbatekoa banatu izan ez bada, soberakina gainerako udalen artean banatuko da, aurreko ataletan zehaztutako metodologia erabiliz.

10. oinarria. *Prozeduraren instrukzioa.*

1. Kide anitzeko organo batek egingo du instrukzioa, eta ebazpen-proposamena helarazi beharko dio laguntza ematen duen organoari. Hauek osatzen dute kide anitzeko organo hori: Udal Harremanen zuzendari nagusia, Udal Azterlanetarako eta Toki Erakundeentzako Ekonomia Laguntzarako Zerbitzuko burua, Ekonomia Laguntzarako Ataleko burua eta zerbitzuko teknikari bat.

2. Organo emailea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua izango da, eta foru-agindu bidez egingo du.

11. oinarria. *Ebazpenaren edukia, ebazteko eta jakinarazteko epea, jakinarazteko bidea eta organo eskudunari aurkez dakizkiokeen errekurtsuak.*

1. Ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta interesdunei gehienez ere bi hilabeteko epearen barruan jakinaraziko zaizkie, eskatutako agiriak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Hala ere, epe hori luzatu egin ahal izango da,

4. Para la determinación del importe definitivo, tal y como se regula en la base 16, se seguirá el procedimiento descrito en el apartado 3 pero teniendo en cuenta, en este caso, los importes dispuestos admitidos y ajustados.

De esta forma se obtiene el porcentaje subvencionado definitivo a aplicar al importe dispuesto admitido y ajustado. Este porcentaje no puede ser superior al 100%.

5. Una vez aplicado lo regulado en el apartado 4 anterior, y en caso de que, como consecuencia de concurrir sobrefinanciación en algún ayuntamiento, no se haya repartido el importe aprobado para el tramo, el sobrante se distribuirá entre los restantes ayuntamientos utilizando la metodología definida en los apartados anteriores.

Base 10. *Instrucción del procedimiento.*

1. El órgano colegiado formado por los titulares de la Dirección General de Relaciones Municipales, Jefatura del Servicio de Estudios Municipales y Asistencia Económica a Entes Locales, la Jefatura de Sección de Asistencia Económica y una persona técnica del Servicio instruirán el procedimiento debiendo elevar la propuesta de resolución al órgano concedente.

2. El órgano concedente será el diputado foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales mediante orden foral.

Base 11. *Contenido de la resolución, plazo de resolución y notificación, medio de notificación y recurso ante el órgano que corresponda.*

1. Las resoluciones que se dicten pondrán fin a la vía administrativa y serán notificadas a los interesados en el plazo máximo de dos meses desde la finalización del plazo de presentación de la documentación exigida. No obstante, este plazo podrá ser ampliado



2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 23. artikuluan zehazten den kasuan.

en el supuesto previsto en el artículo 23 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

2. Aurreko zenbakian aipatutako gehieneko epea igaro ondoren, ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskatzaileek beren eskabideak ezetsi egin direla pentsatu ahalko dute, administrazio-isiltasuna dela eta.

2. Transcurrido el plazo máximo señalado en el apartado anterior sin que se hubiera dictado y notificado la resolución, los solicitantes podrán entender desestimadas sus solicitudes por silencio administrativo.

3. Ebazpena jakinarazten zaion egunaren biharamunetik aurrerako hamar eguneko epea izango du udal onuradunak dirulaguntza onartzeko. Epe hori igarota, kontrakoa ezer adierazten ez badu, onartutzat joko da.

3. Si en el plazo de diez días contados desde el día siguiente a la notificación de la resolución de concesión el municipio beneficiario no manifiesta nada en contrario, se entenderá aceptada la subvención.

4. Udal Harremanen Zuzendaritza Nagusiak jakinaraziko die ebazpena udal interesdunei, posta ziurtatuaren bidez edo bide elektronikoa erabiliz.

4. La Dirección General de Relaciones Municipales notificará a los municipios interesados la resolución por vía electrónica.

5. Ebazpenaren aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik zenbatzen hasita. Nahi izanez gero, eta goiko errekurtso hori jarri baino lehen, errekerimendua aurkeztu ahal izango da, ebazpena eman duen organoari zuzenduta, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik zenbatzen hasita.

5. Contra la resolución se podrá interponer directamente, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la notificación. Potestativamente y con carácter previo al recurso citado, se podrá presentar requerimiento ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación.

12. oinarria. *Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzearen ondorioz ebazpena aldatzea ekar dezaketen inguruabarrak.*

Base 12. *Circunstancias que, como consecuencia de la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrán dar lugar a la modificación de la resolución.*

1. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak onar dezake aldaketak egitea diruz lagundutako aurrekontuan, baldin eta justifikaturik badago, arrazoi berriak eta ustekabekoak agertu direlako, zeinak nahitaezkoak izan behar dira dirulaguntzaren helburua lortzeko. Horretarako, udal onuradunak aldaketak onartzeko eskabidea aurkeztuko du eta 17. oinarrian aipatutako agiriak aurkeztu beharko ditu.

1. El Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales podrá admitir modificaciones sobre el presupuesto subvencionado, justificadas por causas nuevas e imprevistas que resulten necesarias para la consecución del objeto de la subvención. A tal efecto, el municipio beneficiario presentará la solicitud de admisión de las modificaciones y aportará la documentación referida en la base 17.



2. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak, foru-agindu bidez, eskatutako aldaketen gaineko ebazpena emango du, eta onartzen den aurrekontu aldatua izango da, ondore guztietarako, diruz lagundu daitekeen aurrekontutzat hartuko dena.

3. Ez dira kontuan hartuko atal berriak sartzea eragiten duten aldaketak, guztira dirulaguntza jaso duen hasierako aurrekontuaren % 20tik gorako zenbatekokoak badira. Ez dira kontuan hartuko ere dauden atalak gehitzea eragiten duten aldaketak, atal bakoitzeko hasierako zenbatekoaren % 50etik gorakoak badira. Dauden ataletan murrizketak egiten direnean, 20. oinarrian ezarritakoa beteko da.

4. Aldaketa horiek onartzeak ez du ekarriko diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren zenbatekoa handitzea.

13. oinarria. *Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntzen publizitatea.*

Emandako behin betiko dirulaguntzak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, honako hauek adierazita: deialdia, zein aurrekontuko programa eta kredituri egotziko zaizkion, onuraduna, eta diruz lagundutako proiektua.

14. oinarria. *Udal onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.*

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak jasotako dirulaguntzaren publizitatea egin beharko du, 16. oinarrian aipatzen denarekin bat eta honako hauek betez:

1. Dirulaguntzaren xede den jarduketa 20.000 euroan edo gehiagotan adjudikatzen denean, jarduketa gauzatzen den bitartean behar bezalako publizitatea egin beharko da onuradunaren web-orri ofizialaren bidez, edo, bestela, zabalkunde masiboa bermatzen duen beste edozein bitarteko erabilita. Publizitate

2. El diputado foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, mediante orden foral, resolverá sobre las modificaciones solicitadas siendo el presupuesto modificado admitido el que se tendrá, a todos los efectos, como presupuesto subvencionable.

3. En ningún caso se tendrán en cuenta modificaciones que supongan la incorporación de capítulos nuevos por un importe total superior al 20% del presupuesto inicial subvencionado ni las que supongan aumento de capítulos ya existentes por un importe superior al 50% del importe inicial de cada capítulo. Tratándose de disminuciones de capítulos ya existentes se estará a lo establecido en la base 20.

4. La admisión de estas modificaciones no implicará el aumento de la cuantía del presupuesto subvencionable.

Base 13. *Publicidad de las subvenciones concedidas por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.*

Se publicará en el Boletín Oficial de Bizkaia las subvenciones definitivas concedidas, con expresión de la convocatoria, programa y crédito presupuestario al que se imputan, beneficiario y proyecto subvencionado.

Base 14. *Difusión de la subvención concedida por parte del municipio beneficiario.*

La entidad beneficiaria de la subvención deberá dar adecuada publicidad a la subvención concedida referida en la base 16, de acuerdo con lo siguiente:

1. Cuando la actuación objeto de subvención se adjudique en un importe igual o superior a 20.000 euros, durante la ejecución de la misma, deberá dar adecuada publicidad a través de la página web oficial del beneficiario, o por cualquier otro medio que garantice la difusión masiva, indicando el



horretan emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta horren jatorria agertu beharko dira. Bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira eta hizkuntza sexista ez erabiltzea zainduko da (VII.a. eranskina).

2. Gainerako kasuetan dirulaguntza jaso duen inbertsioaren publizitatea erakunde onuradunak berak egiten duenean eta publizitatea agertzen den bitarteko berean baino ez da agerrarazi beharko inguruabar hori.

15. oinarria. *Gastua xedatzeko epea.*

1. Diruz lagundutako gastuak 2026eko aurrekontu-ekitaldiko ordainketa-kredituen kargura xedatu beharko dira, 2026eko urriaren 6an amaituko den epe luzaezinaren barruan. Epe hori ezin izango da luzatu.

2. Urte askotarako gastu-proiektua denean, 2026eko ekitaldia baino lehenagoko ekitaldietan adjudikatutakoa, 2026eko ekitaldiko ordainketa-kredituen kargura burutuko den inbertsioaren zatiak baino ezin izango du jaso dirulaguntza.

3. Gastua deialdiko ekitaldian xedatzeko baldintza ez da betetzat joko baldin eta kredituak aurreko ekitaldi batean konprometitutako soberakinen gehikuntzari badagozkio.

16. oinarria. *Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa.*

1. 2026eko urriaren 16tik aurrera, udal onuradun bakoitzak zer zenbateko erabili dituen ikusi ondoren, berriro ere banatuko da kreditu erabilgarria, 9. oinarrian deskribatutako prozeduraren arabera banatu ere, baina kasu honetan kontuan hartuko da onuradunei aurretik zer zenbateko doitu onartu zitzaizen eta zenbat erabili duten.

2. Prozeduraren instrukzio-organoak, 17. oinarrian adierazitako agiriak aztertu ondoren, txostena egingo du hauei buruz:

importe y la procedencia de la subvención concedida. Se utilizarán las dos lenguas oficiales, velando por el uso no sexista del lenguaje (Anexo VII.a).

2. En los demás casos tales circunstancias sólo se harán constar en el caso de que la entidad beneficiaria realice su propia publicidad de la inversión objeto de subvención y en el mismo medio en que ésta se efectúe.

Base 15. *Plazo de disposición del gasto.*

1. Los gastos subvencionados deberán estar dispuestos con cargo a créditos de pago del ejercicio presupuestario 2026 en un plazo improrrogable que termina el 6 de octubre de 2026.

2. Cuando se trate de un proyecto plurianual de gasto, adjudicado en ejercicios anteriores al 2026, sólo será subvencionable la parte de la inversión a ejecutar con cargo a créditos de pago del ejercicio 2026.

3. No se entenderá cumplido el requisito de disposición del gasto en el ejercicio de la convocatoria si los créditos se refieren a incorporaciones de remanentes comprometidos en un ejercicio anterior.

Base 16. *Importe definitivo de la subvención.*

1. A partir del 16 de octubre de 2026, vistos los importes dispuestos por todos los municipios beneficiarios, se procederá de nuevo al reparto del crédito disponible de acuerdo con el procedimiento descrito en la base 9 pero teniendo en cuenta, en este caso, los importes dispuestos admitidos ajustados.

2. El órgano instructor del procedimiento una vez analizada la documentación indicada en la base 17, informará sobre:



a) Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoak zehazteko proposamena, 9. oinarrian dirulaguntza banatzeko ezarritako irizpideak aplikatuz.

b) Ordainketa osorako edo ordainketa osagarriko proposamena.

Aurrekoaren ondorioz aldatu egingo da, beharrezkoa izanez gero, dirulaguntza emateko hasierako ebazpena.

3. Oinarri honetako aurreko bi zenbakien arabera, dirulaguntza zenbateko jakin gisa ematen da, diruz lagundutako inbertsioaren portzentaje edo zati bat kontuan hartu gabe.

17. oinarria. *Ordainketa.*

1. Dirulaguntza ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak honako hauek bidali beharko ditu Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailera 2026ko urriaren 16an bukatuko den epe luzaezinaren barruan:

a) Esleipen-erabakia.

b) Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa ordaintzeko eskabidea (V. eranskina). Horretarako dagoen laukitxoa markatu behar da.

c) Inbertsioa erabilera edo zerbitzu publiko bati atxikitzeko konpromisoa (V eranskina).

d) Gastu-xedapenaren kontabilitateko dokumentua, kontu-hartzailearen txostenarekin batera, non jaso behar den kredituak ez direla aurreko ekitaldietan xedatutako gastuen soberakinen gehikuntzen ondorio (VI. eranskina).

e) Eskatzaileak beste dirulaguntza eta laguntzarik lortu badu helburu bererako, laguntza horiei buruzko adierazpena, zeinahi

a) La propuesta de fijación de importes definitivos de subvención de acuerdo con la aplicación de los criterios de reparto establecidos en la base 9.

b) La propuesta de abono total o abono complementario.

Derivado de lo anterior se modificará, en su caso, la resolución de concesión inicial.

3. La subvención concedida, de acuerdo con los dos apartados anteriores de esta base, se considera un importe cierto sin hacer referencia a ningún porcentaje o fracción de la inversión subvencionada.

Base 17. *Pago.*

1. Para proceder al pago el municipio beneficiario deberá remitir al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales en un plazo improrrogable que termina el 16 de octubre de 2026.

a) Acuerdo de adjudicación.

b) La solicitud de abono del importe definitivo la subvención (Anexo V). Señalando a tales efectos la casilla correspondiente.

c) El compromiso de afectación de la inversión a un uso o servicio público (Anexo V).

d) El documento contable de disposición del gasto junto con el informe del órgano que ejerza las funciones de intervención en el que se haga constar que los créditos no se refieren a incorporaciones de remanentes de gastos dispuestos en ejercicios anteriores (Anexo VI).

e) La declaración, en su caso, de las subvenciones y ayudas que el solicitante hubiera obtenido para la misma finalidad,



administrazio, erakunde publiko zein pribatutik datozela ere, estatukoa dela zein nazioartekoa (VII.b eranskina).

f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik daudela egiaztatzen duten agiriak onuradunak berak aurkeztu behar ditu, baldin eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari berariaz ukatu bazaio agiriok zuzenean lortzeko baimena.

g) Esleitutako aurrekontua, kapitulutan banakatua edo idazkaritzako idatzia, esleipenaren bajaren ehunekoa adierazita, eta hori lineala dela aurkeztutako hasierako aurrekontuaren kapitulu guztientzat.

h) Bidezkoa denean, 12. oinarriaren arabera, hasierako aurrekontuarekiko onartu diren aldaketak onartzeko eskaera, bai eta aldaketa horiek justifikatzeko dokumentazioa ere, exekuzio-proiektua barne, baldin eta aldaketarik badago eskabidearekin batera bidalitako hasierako proiektuarekin alderatuta.

i) Kontratazioaz ezartzen dena bete dela egiaztatzeko dokumentazioa (IX. eranskina).

2. Aurrekoa gorabehera, aukera dago 9. oinarriko 3. zenbakiaren arabera zehaztutako hasierako zenbatekoaren ordainketa eskatzeko; udal onuradunak, horretarako, aurreko zenbakian adierazten diren agiriak bidali beharko dizkio Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari. Horretarako epea 2026eko uztailaren 22an amaituko da. (horretarako, dagokion laukitxoan markatu beharko du V. eranskinean).

Udalak hasierako zenbatekoaren ordainketa eskatu badu eta hasieran emandako zenbatekoa handitu egiten bada 16.2 oinarriaren arabera ebatzitako aldaketa baten ondorioz, ulertuko da udalak dagokion ordainketa osagarria ere eskatu duela.

procedentes de cualquier administración, ente público o privado, nacional o internacional (Anexo VII.b).

f) Las acreditaciones de estar al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, la entidad beneficiaria deberá aportar dichas certificaciones si se ha denegado expresamente el consentimiento al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales para que obtenga de forma directa.

g) Presupuesto adjudicado, desglosado en capítulos o escrito de secretaría indicando el % de baja de adjudicación y que ésta es lineal a todos los capítulos del presupuesto inicial presentado.

h) Cuando proceda de acuerdo con la base 12, solicitud de admisión de las modificaciones aprobadas respecto al presupuesto inicial, así como la documentación justificativa de dichas modificaciones, incluyendo el proyecto de ejecución en caso de que haya variaciones con respecto al remitido con la solicitud.

i) La documentación acreditativa de haber cumplido lo establecido en materia de contratación (Anexo IX).

2. No obstante lo anterior, se podrá solicitar el abono del importe inicial determinado de acuerdo con la base 9, apartado 3, para lo cual, el municipio beneficiario deberá remitir al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, en un plazo que termina el 22 de julio de 2026, los documentos indicados en el apartado anterior. (Señalando, a tales efectos, la casilla correspondiente en el Anexo V).

3. Si el municipio ha solicitado el pago del importe inicial, y se aumenta la cantidad concedida debido a una modificación resolución tal y como se regula en la base 16.2, se entenderá que el municipio también ha solicitado el pago complementario correspondiente.



18. oinarria. *Gauzatzeko epea, ordainketa eta dirulaguntzaren helburua bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla justifikatzeko epea.*

Base 18. *Plazo de ejecución, pago y justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.*

1. Diruz lagundutako jarduketak gauzatzeko epea 2027ko maiatzaren 31n amaituko da. Horretarako, bakarrik hartuko dira kontuan 2027ko uztailaren 31ra arte ordaindutako fakturak. Erabilera edo zerbitzu publikorako atxikipen-aldia 5 urte izango da, zerbitzu publikoa ematen hasten denetik edo ondasuna erabilera orokorrerako ematen denetik zenbatzen hasita.

1. Las actuaciones subvencionadas deberán quedar totalmente ejecutadas en un plazo que termina el 31 de mayo de 2027. A tal efecto, solo se tendrán en cuenta las facturas pagadas en un plazo que termina el 31 de julio de 2027. El periodo mínimo de afección al uso o servicio público será de 5 años desde que se comience a prestar el servicio público o se entregue el bien al uso general.

2. Dirulaguntzaren xede den inbertsioa egiten denean, udalerrriak, ahal dela, oztopo arkitektonikoak eta komunikabidezkoak ezabatzeko ahalegina egingo du, hala dagokionean.

2. En la ejecución de la inversión objeto de subvención, el municipio, en la medida de lo posible, procurará la eliminación de las barreras arquitectónicas y de comunicación, en el caso de que proceda.

3. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak, salbuespenezko egoeretan eta aurkeztu beharreko justifikazioa onartu ondoren, 1. atalean jarduketak burutzeko zehazten den epea luzatu ahal izango du saileko foru diputatuaren foru agindu bidez. Luzapenaren iraupena diruz lagundutako inbertsio zehatzean gertatzen diren inguruabarren arabera finkatuko da; edonola ere, jarduketa burutzeko epea 2027ko irailaren 30ean amaituko da.

3. El Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, en supuestos excepcionales y previa aceptación de la justificación pertinente, mediante orden foral del diputado foral, podrá conceder una prórroga al plazo de ejecución del apartado 1, cuya duración se fijará en función de las circunstancias que concurran en la concreta inversión subvencionada y que, en todo caso, finalizará el 30 de septiembre de 2027.

Era berean, salbuespenezko kasuetan, eta bidezko justifikazioa onartu ondoren, foru diputatuaren foru agindu bidez luzapena eman ahal izango zaio 1. atalean adierazten den ordaintzeko epeari dagokionez. Luzapen horren iraupena diruz lagundutako inbertsioaren inguruabarren arabera ezarriko da, eta, nolanahi ere, abenduaren 31n amaituko da.

También podrá, en supuestos excepcionales y, previa aceptación de la justificación pertinente, mediante orden foral del diputado foral, conceder una prórroga al plazo de pago del apartado 1, cuya duración se fijará en función de las circunstancias que concurran en la concreta inversión subvencionada y que, en todo caso, finalizará el 31 de diciembre.

4. Herri Administrazioarako eta Erakunde

4. El Departamento de Administración



Harremanetarako Sailak, udal onuradunak eskatu ondoren eta foru-diputatuaren foru-agindu bidez, dirulaguntza jaso duen adjudikatutako aurrekontuaren aldaketak onartu ahal izango ditu, baldin eta aldaketok arrazoi berri eta ustekabekoek sortuak badira eta dirulaguntzaren helburua lortzeko beharrezkoak badira.

